

Arrasate

P R E S S

1997ko
Abenduak 24
390. zenb.

ZORIONAK

ETA 1998

URTE

BERRI

ON!



JAPAN

Olaya's

MANDARINA DUCK



LUIS ESTEVE



GILABERT

RONCATO VALIGERIA

Spek Denda



Urte
Berri On!

Iturriotz, 19 Herriko Plaza
ARRASATE



Solairu
konbinakorra

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



Zeramika erakusketa eta salmenta

Uribarri Etorbidea, 22-B
Tel.: 79 81 80 • Faxe: 79 81 80
ARRASATE

Mitoak eta polemika gai

Antzinako euskal sinismen paganoen eta gizarte kristautuaren arteko muga argitzera etorri zen. Aspaldiko urteotan oso ezagun eta hurbil bihurtu zaigu tripandi hau, pipa ahoan eta txapela buruan dituela, aro kristauaren berri ematera etorri eta haur -eta ez hain haur-guztien poz bihurtu den pertsonaia xehe eta herrikoia.

Urtero lez, badator aurten ere gure kaleetan zehar haurrak poztera eta berriz gabonak iritsi direla erakustera. Baina aurten ez da lasai eta bakean iritsiko, ustekabea, herri honek bizi duen etenik gabeko gatazka-karen biktima egin dute eta. Gure ikazkin apal eta eskuzabalari muga politikoak jarri dizkiote euskal munduaren barrutian.

Zergatik gogaitzen ditu hainbeste alderdi



Karmele Perez

“Zenbat etxe daude Arrasaten bertan erregeei ongi etorria ematen diena? Eta zer?”

politiko batekoak honelako pertsonaia xume batek? Zergatik ez ditu gogaitzen guretzat hain arrotz den aita Noelek, gure hiriburuetan gero eta gehiago ikusten den pertsonaia inportatuak, nahiz eta gehienok- ziuernaiz- ez dakigun ze tradizioetik datorren?

Beraiek erregeen tradizioa aldarrikatzen dute, aro kristauak ekarri eta ezarri zuen tradizioa. Ze kasualitatea! Olentzero bezala! Nork esan die tradizioz aldatu behar dutela? Nork behartu du sendiren bat dioxosozko opariak Olentzerok ekarri eta erregeak alde batera uztera? Gauza bat da

momentu jakin batean ikastetxe batzuek gurasoekin adostuta aldaketa hori erabakitzea -orduan haur ginenok opariez oporretan zehar goza genezan- eta beste bat, dagoeneko tradizio bihurtu den hau -batzuen amorratorok, dirudie-

nez- behartutako zerbait izatea. Zenbat ate zenbat etxe daude Arrasaten bertan erregeei ongi etorria ematen diena? Eta zer? Horrelako kontuetan ere polemizatu egin behar dugu? Ez daukagu nahikoa bestela ere?

Eta nor da alderdi politiko bat Euskal Herrian bizi garenon sinismen eta sentimenduetan sartzeko? Ez al dute ezer hoberik egiteko horrelakoetan ere gauzak bere onetik ateratzen ibiltzea baino? Euren helburua ez zen, baina, inor zirikatzea, erregeen nagusitasuna aldarrikatzea baino. Hori zinismoa, hori! Herri honetan bizi dugun botere borroka etengabeko honetan, mitoek ere elkar jipoitu behar dute, antza! Hau da marka!

Haatik, arrasatearrok, gustokoen edo hunkigarrien duzen tradizioari eutsi eta ea urtea lasai eta alai bukatzen duzen eta ea urte berriari itxaropen eta adore berrindartuz ekiten diogun, horrelako kanpaina zentzugabeek frogatzen baitigute ez digutela atsedunik emango.

Olentzero edo/eta errege on denoi!

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
 Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
 E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Iñaxo Zubillaga, Marian Porcel, Pabito Montero. **Publizitate:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Alube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñaxo Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenkoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Unibarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ohati).

Azala: Goio Arana.

UGARAN
jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tfnoa: 79 76 58
 ARRASATE

PEUGEOT
 Salmenta eta
 zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE



Memesa
79 42 22

24

asteazkena

■ **OLENTZERO**

Eguerdiko 12etan Txorropio eta Txorropia. Arratsaldeko 6etan Olentzero.

25

osteguna

■ **ZINEA**

Hercules. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 9.30etan.

27

larunbata

■ **ZINEA**

Hercules. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ **VI. JUAN RAMON ARANA MEMORIALA**

Almen ikastolan jokatuko da abenduaren 29ra arte. UDA, Antzuola, Arrasate, Eskoriatza, Aloña Mendi eta Bergarako taldeek hartuko dute parte. Partiduak goizez jokatuko dira.

28

igandea

■ **ZINEA**

Hercules. Alai zineman 5etan 7.30etan eta 10etan.

26

ostirala

■ **ZINEA**

Hercules. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ **KONTZERTUA GAZTETXEAN**

Bad F Line eta *Industria Dolor* taldeen kontzertua Gaztetxean gaueko 9.30etan. A.G.A.K.Ok antolatuta.

■ **KONTZERTUA GAZTETXEAN**

D.J. Festa Gaztetxean, arratsaldeko 6etan hasita. A.G.A.K.Ok antolatuta.

29

astelehena

■ **ZINEA**

Hercules. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

MECA
GRUA ZERBITZUA
Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000
24 orduko zerbitzua 365 egunetan



GUARDIAKO FARMAZIAK

Asteazkena 24
• Gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Osteguna 25
• Gauez: Español. Iturriotz.

Ostirala 26
• Gauez: Corcuera. Musakola.

Larunbata 27
• Gauez: Amezua. Santamaina.

Igandea 28
• Gauez: Ruiz. Maala.

Astelehena 29
• Gauez: Morales. San Andres.

Asteartea 30
• Gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Asteazkena 31
• Gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A

Ea zer ekartzen dizuen
Olentzerok, eta ondo hasi urtea!

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

BOLIÑETE
OILASKO ERRETEGIA

Bertan jateko edo eramateko.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 79 39 91

JUBAR
ATEAK. S.L.

- BURDINEZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

30

a

■ **ZINEA**

Hercules. Alai zineman
7etan eta 9.30etan

31

asteazkena

■ **BANDAREN
KONTZERTUA**

Goizeko 11.30etan Arrasate Musikal bandaren kalejira. Eguerdiko ordubatean bandaren kontzertua Amaia antzokian

■ **ZABOR BILKETA**

San Andres, Erguin, Uribarri, Loramendi, Garagartza eta Gesalibarko auzoetan zabor bilketa arratsaldeko ordu 2etan egingo da.

■ **LOGOTIPO
LEHIAKETA**

Gaia: Gazteak batuz elkarlana bultzatu. Logotipoak gazte talde desberdinen arteko lankidetzan adierazi behar du. Logotipoa koloretan eta zuribeltzean entregatu behar da urtarrilaren 13a baino lehen. Lanak Arrasateko Gazte Bulegoan, Hitzaz eta Ekintza elkarteetan, AEDn eta Musakolako eta San Andreseko gazte txokotan entregatu daitezke.

■ **ITURRIPEKO KIROL-
DEGIKO GABONETAKO
ORDUTEGIA**

Iturripeko kiroldegia igande eta jaiegunetan itxita egongo da. Zapatuan, goizeko 8.30etatik 1.30ak arte, zabalik. Gabon gaua eta gabon zahar egunean, arratsaldeko 7.30ak arte, zabalik. Musakolako kiroldegia: gabon egunean arratsaldeko 7.30ak arte zabalik. Eguberri egunean itxita. **31an, arratsaldeko 7.30ak arte zabalik. 1ean itxita eta errege egunean, berri, goizez bakarrik zabalik.**

■ **AMODIOZKO
GUTUNEN VI. LEHIAKETA**

Lanen luzera ezingo da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lema bakarrik. Helbidea:


Amodiozko gutunen VI. Berrigara lehiaketa. Jardun elkarte, Masterreka, 13 behea. 20570 Bergara. Lanak aurkezteko azken eguna, urtarrilaren 14a.



■ **TXIKILANDIA KIROLDEGIAN**

Urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5ean Musakolako kiroldegian. Goizez, 11etatik ordu 2ak arte zabalik eta arratsatez 4retatik 8ak arte. Esparru desberdinak joko eta entrenamenduz beteta egongo dira, umeek primeran pasa dezaten. Gurasoek euren txokoa izango dute. Txatxibusak ere egongo dira Musakolara joateko eta itzultzeko. Txatxibusa doan izango da.



OPEL 

**HATOR
HATOR MUTIL
ETXERA...
Urte berri on
Arrasate!**

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE
Tel.: 79 05 86

EUSKAL MENDIZALEEI

Hainbeste urteko ahalegin eta duda ostean, hurbilago dogu euskal mendizaleok horrenbeste desiatutako ton-torra. Eta oraingoan ez zortzi milako bat. Bakarrik gure nortasuna berreskuratzea. Euskaldun izatea paperetan ere bai.

Atzera begira, gogoan ditugu Euskal Herriko Federazioa eta ez "Vasco-Navarra" delakoa izateko egindako proposamenak, eta batuta jarraitzeko ahaleginak, gure herria artifizialki banatua izan zenean. Beno, ba azkanean hori dena loratzen doa. Aurten, Euskal Federazioko urteko batzar orokorrak argi berdea eman dio gure lizentzia propioa izateari. Hemendik aurrera ez gara izango "espainolaren" adar indartsu eta potente bat. Gure euskal izatera ez da FEMeko siglen azpian mozarrotuta geratuko.

Baina oraindik bidea dugu egiteko. Aurtengoak abiapuntua izan behar du, gure federazioaren errekonozimendu internazionala beste elkargoen pare lortzeko. UIA-An (Munduko Mendi Elkargoen Elkartea) egon behar dugu, aspaldi bezala.

Hortaz ba, lizentzia berria eskuratzera animatzen ditugu euskal mendizaleak. Eta ea ideia zabaltzen den eta beste kirol guztietan pareko ekimenak sortzen diren. Euskal nortasuna onartua izan dadin, baita kirolean ere.

Gaur gure lizentzia dugu, bihar...

Tontorra hurbilago dago.

Juan Jose Saenz
(Zortziko Komandoko partaidea)

EUSKAL KULTURA ETA OHITURAK POLITIKAREN GAINETIK

Idatzi honen bidez, Lore Gazteak dantza taldekook, azken gertaerak direla medio gertatutako kezka eta desadostasunak argitu asmoz, zera argitu nahi dugu:

Lore Gazteak dantza taldekook ulertzen dugu, udalarekin hitzarmen bat adostuta dugun heinean, Santamas jaientan parte hartzera konprometituta gaudela. Hala ere, partehartze hori elkarlan gisa ulertu behar dela deritzogu. Hori dela eta, jai hauen antolakuntzan udalak jarraitu duen bidearekin gure desadostasuna adierazi nahiko genuke. Desadostasun hau puntu haue-

tan oinarritzen dugu:

1- Santamasetako programa egiterakoan gure partidetza onartu da baina programa hori osatzeko orduan, ez da inongo kontsultarik egin ez eta inolako iradokizunik eskatu. Gure ustetan ez da egokia partehartze guztia erabakitzea gurekin ezetarako kontatugabe.

2- Lehen puntu honen ondorio gisa hartu daitekeen beste erabaki bat: herriko plazan izei bat jartzea.

- Izan al dira kontutan herritarren urteroko ekintzak erabaki hau hartzerako orduan?

- Izan da kontutan Olenzero egunean urtero egiten den su herritzaile eta garbitzailea?

- Non egingo da?
- Eskina batetan, jendearen ondoan?

- Izan al da kontutan herri-

tarren partehartzea, dantzak edo Olenzero "ikustera" etortzean?

- Beraz, zergatik aurten bat-batean, izei bat plazaren erdian?

- Zirkuloaren erdia nabarmentzea beharrezkotzat jotzen da, ala?

Bukatzeko, zera nahi dugu: "Santamas Komisiñua" eta udalaren artean sortu zen auzia zela eta, azaroaren 24ean hainbat kultur taldek sinatu genuen idatzian azaltzen zen iritzia eta kezka mantentzen dugula.

Penagarria iruditzen zaigu udalak idatzi hura kontutan hartu ez izana eta herritarren ekimenak ez bultzatzea eta babestea, aurretik azaldutako puntuak ere herritarren ekimen bezala ulerturik.

Lore Gazteak
Dantza Taldea

Datorren urtera arte irakurle!

Ailegatu dira Gabonak, eta ARRASATE PRESSEKOOI ere oportxo batzuk hartzeko garaia heldu zaigu.

Urtarrilean bueltatuko gara lanera, eta 98ko lehenengo alea urtarrilaren 16an kaleratuko dugu.

Ordura arte ondo ibili eta urte berri on ARRASATE PRESS egiten dugun guztion izenean.

DISCO-BAR



Disco-Bar GURELEKuk
Eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizu


Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 79 20 29



Portugaletik
inportazioak!

Prezio ezin
hobeak!
Konfiantza
osoz!

UDAN
MODA
MERKEENA!!!



Olarte, 6 • Tel.: 79 25 71 • ARRASATE



Citroën Xsara berria

Azken belaunaldiko ametsa.

Claudia Shifferek, notario aurrean inpaktu froga egitean konfiantza osoko ametsa dela erakutsi du.

Azkenaldiko segurtasun neurri onenekin osatutako ametsa.

Bizigarritasunaren ametsa, bere tamainari esker, bere kategoriko handienetarikoa bihurtuz.

Baita bere ekipamendu osatuagatik:

lagunduriko direkzioa, gidari airbaga, bolante erregulagarria altueran eta sakontasunean, lapurreten kontrako babesa blokeo elektrikoarekin, aurreko kristal jasogailu elektrikoak, zabaltzeko frekuentzia handiko urruneko agintea, eta abar.

Eta alboetako airbag bikoitzak, abs, klimatizagailu automatikoa...jartzeko aukera.

Citroën xsara berria da.

Azken belaunaldiko zure ametsak bere esku uzteko kotxea.

Citroën xsara berria.

1.852.000 pta.tik aurrera.*



“Fida zaitezkeen konfiantzazko laguna”

Claudia Shiffer.

*PSN gomendatuak BEZ eta matrikulazio zorra eta garraioa barne, irteera promozioa ez akumulagarria eta Jaurkitzaren dirulaguntza (PREVER PLANA), hile bukaera arte Penintsulan eta Balearretako stockeko turismoentzat.



Xsara

Citroën Xsara berria. Azken belaunaldiko ametsa.

EZIN IMAJINATU CITROËNEK ZUGATIK EGIN DEZAKEENA.

CHAPIME TAILERRAK

Araba etorbidea, z/g • Tel.: 79 06 57 / 79 45 22 / 7708 67 • Faxe: 77 10 47



Oporretan ere



etxeko lanak banatu



eta 1998an...




Santamasak: baserria kalean

Santamas eguneko lehen orduetan nabaria zen aurreko gauean jende asko ibili zela kalean.

Gaueko arrastoak garbitu, eta kaleak berriro ere jendez bete ziren. Eguraldi ona lagun, bazkalostera arte jende asko ibili zen kalean baina ondoren euria hasi eta eguna ilundu egin zen. Ez dakigu euriagatik edo zergatik izan zen, baina iluntzean ez zen txerri dantza ikusteko aukera egon. Dantzariak hurbildu ziren plazara, baina ez musikariak. Gauean jaiak tabernetan jarraitu zuen.

Urtero bezala fin-fin ibili zirenak karteristak izan ziren. Aurten ere makinatxo bati lapurtu zieten kartera, Itxaso Garai kultura batzordeburuari besteak beste. Eskerrak "Tomas" lapurtu ez zuten, eta 4.155 zenbakiari egokitu zaio aurtengo txerria. Zorionak irabazleari!





Logopedia eta psikologia
tratamendu kliniko eta
hezitzaileak haur eta
helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE



Santamas pilota txapelketako irabazleak Elkoro eta Etxanizekin.

Lasgabaster jantzidendak irabazi du eskaparate lehiaketa. Bigarren Troko jantzidenda geratu da eta hirugarren Ehune apainketa denda.



Bildotsak badu jaberik

Kuadrilen arteko Santamas krosean *Tiembla portero* taldea izan zen irabazle. Bildotsarekin etxeratu eta, honezkero, sabelean izango dute ondo gordeta. Azkarrak taldekoek, berriz, lau untxi jaso zituzten eta *Atxabaltarrek* lau oilasko. Banaka ibili zirenen artean, juniorretan onenak Joseba Larrinaga eta Alaitz Perez de Arenaza izan ziren. Beteroetan, berriz, Mari Jose Gil eta Francisco Andres. Aupa txapeldunak!



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5
TEL.: 79 20 52
ARRASATE

EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA!



ARBA

**SUKALDE ETA
DEKORAZIO
PROIEKTUAK**

Juanita Arana

Mondragones kalea, 9 (Azoka ondoan)

ARRASATE • Tel./Faxa: 77 07 50

Kalitatea beti!



SUKALDEAK eta ELEKTRATRESNAK

Miele

ALTZARITAN ESKLUSIBITEA BAILARAN





*Karmele Bitxitegian
oparirik
distiratsuenak.*

ZORIONAK

VRTE
BERRI
ON



Herri kirolak

Fausto Mugerzak- goiko argazkian- bost metrora bi korte eman zizkion enberrari. Migeltxo Saralegik, berriz, sasoia eta harri azpian jarritako marka publizitariao ederto erakutsi zituen.



Tomas Larrañaga eta bere laguntzailea.

Azokako sariak

Tomas Larrañaga antzuolarrak bi sari eraman ditu aurtengoan. Santamasetako barazki lehiaketaren lehen saria eta produktu ekologiko onenen sari berezia. Auskalo zenbat sari jaso dituen Tomasek honezkero! Bigarren saria, berriz, Joxe Iturbe arrasatearrak jaso zuen eta hirugarrena Mercedes Urien bergararrak. Fruituetan, bi sari egon ziren: lehena Antzuolako Kontxi Izagirrek eskuratu zuen eta bigarrena Maria Etxezarreta gabiriarrak. Ogien sari berezia Bedoñako Joseba Aranak lortu zuen eta gaztai lehiaketan haxe izan zen sailkapena: lehena Bixente Urzelai oñatiarra, bigarrena Jexux Aranburu idiazabaldarra, eta hirugarrena Luxio Unda olaetarra.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Abere ugari ikusgai

Behiak, zaldiak, ardiak, astoak... abere ugari ikusgai Lau Bide plazan. Itxura denez, argazkiko neskatxoa harrিতuta geratu zen astoa ikusterakoan, eta amari galdetu zion ea *Astonia*-tik ekarri zuten.



Jende gutxitxo herri bazkarian

Ezin esan Musakolako kiroldegian egin zen herri bazkariak arrakasta izan zuenik. Antolatzaileek 300 lagunendako prestatu zuten bazkaria, baina azkenean erdia baino ez zen joan. Mahaietan arrasatear gutxi ikusten zela esan behar. Hori bai, kanpotik etorritako artisau, kirolari eta musikoei bertan bazkaldu zuten.



Kantuan bezain abilak al dira txorixoak frijitzen Goikobaluko lagunak? Seguru baietz!

GOIZ-ALDE

GOZARIAK, PLATER
KONBINATUAK ETA
MERIXENDAK

Iturriotz, 33 • Tel.: 79 11 15



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis
Tel.: 77 09 92 / Faxes: 79 78 14
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea
Tel.: 78 21 82
OÑATI


Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA


Ramón M. Lilí, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea 1-0-4
Telefonoa: 794844
FAXA: 792941



weru®
Ate + leihoak




ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
Moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, textila...

S. Carrascal S.L.



Bertan egindako

- **Sukalde altzariak**
- **Armairu enpotratuak**
- **Trastelekurako armairuak**
- **Etabar**

Jai zorientuak opa dizkizuegu.

Fabrikan erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea, 6-1 A. Tel./Faxa: 79 01 82

Karmele Barandiaranen eskutik 1998. urterako



Karmele Barandiaran, Donostian bizi den arrasatearra, astrologian aditua dugu eta berak egin digu datorren urterako horoskopoa.

Karmeleren ustez, astrologiak etorkizuna irakurtzeko balio du, eta astroen ibilbidea kontuan izanik, datorren urtean nolako indarrek eragingo diguten jakin daiteke. Hala ere, Karmelek argi utzi nahi izan du norberaren borondateak eragin handia duela une txarrak onak bihurtzeko eta alderantziz.

Aries

Askatasuna behar duen zeinua da, eta bere nortasunaren gidari izatea gustatzen zaio. Aries zaretanok gauzak azkar egin nahi izaten dituzue baina 98an ere Saturnoren eraginpean egongo zaretenez, poliki joatea komeni zaizue. 99rako energiak gorde.

Une zailena: martxoaren 4tik apirilaren 13ra arte. Komeniko litzateke epe horretan yoga edo erlajazioa egitea.

Maitasuna: Oso epe ona maiatzaren 3tik 29ra.

Ikasketa edo negozioetarako: maiatzaren 8tik 15era une ederra.

Taurus

Uztailetik urrira arte saturnoren eragina izango dute, baina Taurus-tarrek ez diote beldurrik Saturnori eta onartu egingo dute.

Oso bolada ona apirilaren 13tik maiatzaren 24ra. Kementsu egongo zarenez, tarte horretan proiekturen bati ekitea komeniko litzaizuke.

Maitasuna: maitzaren 29tik ekainaren 29ra bolada ona, beraz aprobetxatu!

Negoioetarako eta harremanetarako Taurus zeinu ona denez, horretarako egun ezin-hobeak izango dituzu maia-

tzaren 15etik ekainaren 1era arteko tartea.

Datorren urtea ona izango da baina 99an Saturno gainean izango duzunez, lan handia izango duzu; beraz, 98an zerbait egiten hastea komeni zaizu.

Gemini

Gauza askotara heltzeko gai zara, gauza asko eskuartean dituzunean hobeto moldatzen zara, eta lana taldean egitea gustatzen zaizu. Hala ere, egiten zabiltzan horretan ez duzu sakontzen eta 98an sakontzea komeni zaizu. Urte ona izango duzu baina saiatu egin behar-koduzu.

Oso urduri egongo zara maiatzaren 24tik uztailaren 6ra arte. Maitasunerako aldi onena ekainaren 24tik uztailaren 19ra arte.

Ikasketa edo negozioetarako une oparoa: ekainaren 1etik 15era.

Orokorrean urte ona.

Cancer

Sentimenduen bidez funtzionatzen duzu; familiari eta herriari oso lotuta zaude.

97a urte exkaxa eta zaila izan da, baina 98a apur bat hobea izango da. Diruarekin kontuz ibili beharko duzu, zaindu dirua.

Bolada zaila izango duzu

uztailaren 6tik abuztuaren 20ra arte. Oso kreatiboa zarenez, ondo egingo duzu epe horretan eskulanak egitea. Pasiatzeak, bainuak hartzeak eta naturarekin harremanetan jartzeak ere ez dizute kalterik egingo. Bereziki urak asko lasaituko zaitu.

Maitasuna: uztailaren 19tik abuztuaren 21era egun onak.

Etxez aldatu edo etxea erosteko garai ona: ekainaren 15etik 30era.

Leo

98a urte ona izango da, baina baretu beharra duzu. Orokorrean ondo joango zaizu urtea.

Une zaila pasatuko duzu abuztuaren 20tik urriaren 7ra arte baina indartsu eta ausart ibiliko zara.

Maitasunerako une onena: abuztuaren 13tik irailaren 15era.

Ikasketa edo negoziotarako tarte aproposa: ekainaren 30etik irailaren 8ra arte. Une egokia negozio berriei ekiteko.

Virgo

Umila zara eta beste batzuen esanera zaude. Dena dela, datorren urtean zehar zeure burua nabarmenduko duzu. Aurten komeni zaizu gauzei garrantzi larregi ez ematea. Utzi bizitzak eraman zaitzan.

horoskopoa

Kontuan izan behar duzun garaia urriaren 27tik azaroaren 27ra artekoa da. Une zailak izango dira.

Maitasunean, une oso ona irailaren 5etik 30era.

Intelektuala zara, hausnarketa sakonak egiten dituen eta kontu horietan primeran ibiliko zara irailaren 8tik 22ra.

Libra

Aurten harreman kontuetan ez duzu zortirik izan, baina 98an lasaiago ibiliko zara. Hala ere, data konkretu batzuk kontuan izan beharko dituzu. Azaroaren 27tik urtea bukatu arte oso urduri ibiliko zara.

Maitasunerako epe aproposena: irailaren 30etik urriaren 24ra.

Ikasketa edo negozioetarako ere irailaren 24tik urriaren 12ra arte egun onenak.

Scorpio

Oso sentikorra zara eta borondate handikoa. Urtarrila ez da

hilabete ona izango zuretzat.

Sexu harremanetarako oso indartsua zara. Kontu horietan primeran ibiliko zara urriaren 24tik azaroaren 18ra une ona. Epe horretan harreman sutsuak izango dituzu.

Urriaren 12tik azaroaren 1era une aproposa ikasketa edo negozioetarako.

98a urte ona izango da.

Sagitarius

Idea onak izango dituzu, eta urte ona izango da; hala ere, ez da argi geratuko zenbat balio duzun. Ahalegin handia egingo duzun arren, ez duzu behar besteko errekonozimendua jasoko.

Azaroaren 17tik urte abenduaren 11ra arte urduri ibiliko zara baina une ona izango da maitasunerako. Bolada ona izango den arren, kontuz ibili.

Ikasketa edo negozioetarako urtarrila hile ona, baina batez ere, azaroaren 1etik 99ko urtarrilera. Epe horretan zerbait antolatzen edo planifikatzen hastea komeni zaizu.

Capricorn

Kreatiboa eta amodioan unibertsala zara. Amodio kontuan zuhurra zara, baina 98an harreman berriak egiteko gogoia izango duzu. Horregatik, zuhurra izaten jarraitzea komeni zaizu. Bi bider pentsatu gabe egiten diren gauzek ondorioak eragin ditzakete.

98an ez zara urduri ibiliko. Maitasunerako une onena, urtarrilaren 9tik martxoaren 4ra arte; edozelan ere, ez zaitez ausartegia izan.

Urtarrilaren 12tik otsailaren 2ra ere une ona izango da ikasketa edo negozioetarako.

Aquarius

97a oso urte ona izan da eta 98a ere urte ona izango da nahiz eta Jupiterrek alde egingo duen. Sormen handikoa zara eta informatikarekin oso lotuta zaude. Uranok Aquariusen jarraitzen duela eta, zortea edukitzen jarraituko duzu, baina urtarrilean kontuz ibili.

Amodiorako urte osoa izango da ona baina bereziki bikaina, urtarrilaren 1etik 9ra arte.

Otsailaren 2tik 20ra tarte egokia izango duzu ikasketa edo negozioetarako.

Piscis

Jupiter sartzen ari denez, 98a urte oso ona izango da Piscis zaretenondako. Jupiterrek alderdi on guztiak biderkatuko ditu, eta babestu egingo zaitu. Hala ere gauza onak ez dira berez etortzen eta saiatu egin beharko duzu. Oso garrantzitsua da burua erabiltzea.

Oso erromantikoa zara eta amodio kontuetan zortea izango duzu, baina arlo horretan burua erabili eta ez zaitez erromantizismoan jausi. Maitasunerako epe onena, uztailaren 19tik abuztuaren 30era.

Uztailaren 6tik abuztuaren 20ra artekoa garai latza izango da.

Ikasketa edo negozioetarako: ekainaren 15etik 30era.

Zure urtea da, aprobetxatu!



Danona
KARROZERIA

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 79 58 06

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaia judicialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 79 48 77 • ARRASATE

Jubenil mailako saskibaloia entrenatzailea

JOSE ANTONIO FERREIRA

“Jende jotorrarekin, entrenatzaile lana ez da bain gogorra”

— Jubenilendako bukatu da lehen fasea, zein da zure balorazioa?

— Bigarren faseko play offerako sailkatu ginen, baina kanporaketa horretan Askatuak talde sendoaren kontra neurtu behar izan genituen indarrak eta ez gara Euskal Ligarako sailkatu. Hala ere, uste dut jubenilen taldean dagoen maila ikusita, lehen fasean hobeto ibili behar genuela.

— Zer gertatu da ?

— Denboraldia planifikatzen berandu hasi ginen. Nik taldea liga hasi baino aste bete lehenago hartu nuen, eta, horretaz gain, bajak ere izan ditugu.

— Zeintzuk dira taldearen ezaugarriak?

— Borrokalari suetsuak dira, defentsan ondo jokatzen dute eta gainera teknika ona dau-

kate. Talde sendoa da.

— Beraz, harrobi ona dago.

— Juniorretan bai. Txarrena altuera da. Saskibaloian oso garrantzitsua da eta gure taldean hori falta da.

— Zure lehen urtea izan da entrenatzaile lanetan, zer moduz?

— Jokalariak oso jatorrak dira eta esperientzia ona izan da. Ni gauzak erakusten saiatu naiz, eta euren erantzunak ere asko ikasi dit.

— Lan horretan luzaroan jarraitzeko asmoa duzu?

— Entrenatzaile izateko asko jakin behar da saskibaloiaz. Egia esateko, oraindik ez dut maila ona eta oraingo ez diot nire buruari planteatu titulua ateratzea



Herriko taldeen partiduak

Preferente mailako Mondrak Hondarriabiaren kontra gaur arratsaldeko 3.30etan jokatu-tako neurketarekin aguresan dio 97. urteari. Datorren urteko lehen partiduan, urtarrilaren 4an, Real Union izango dute aurkari arrasatearrek Irunen. Mondrako emakumezko taldeak Nafarroako Trofeo de la Amistad taldearen kontra neurtuko ditu indarrak, urtarrilaren 4an, Atxabalpen. Eskubaloi-koen arerioa Aloña Mendi taldea izango da Iturripen. Datorren urteko lehen zapatuan jokatu-tako partidua. Saskibaloikoek gauzak aldatu eta beste itxura bat erakusteko aukera izango dute urtarrilaren 10ean, T Aralar taldearen kontra Tolosan. Azkenik, Rugbylariek urtarrilaren 10era arte ez dute liga-ko neurketarik izango.

Aldi bi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

GABON ZAHARRERAKO GERTU?



Iturriotz, 12 • ARRASATE



IPUIN TAILERRA

Titulu eskuragarriak

- Nire abentura zirkoan
- Egun bat Errege Magoekin
- Aladino eta biok
- Nire abentura olinpikoa
- Egun bat zooan
- Nire bidaia denboran zehar
- Pocahontas
- Umetxoaren ipuina
- Bugs Bunny basoaren salbatzile
- Nire urtebetetzea azokan
- Lehoi Erregea
- Maitagarrien herrialdea
- Eskiari buruzko nire liburua
- Lehenengo Jaunartzea

Etxera eramango dizugu!

Leintzibar, 2 • ARRASATE
Tel: 79 47 54
E-mail.: melices@arrakis.es

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Bizkaia etorbidean pisua salgai. Berogailua eta bi ganbara. 82 m². Tel.: 79 22 92.

• Zumaian atikoa salgai. Guztiz berri-tua. 70 m². Gela guztiak kanpora ematen dute. 10,5 milioi. Tel.: 86 06 03. Gaueko Betatik 10etara deitu.

• Juan Carlos Gerra kalean etxea sal-gia. Tel.: 77 14 93.

4. Errentan hartzeko

• Bikote gazte batek pisua behar du alokairuan. Tel.: 907 94 06 67.

• Jantzitako etxea behar dugu hiru hilebeterako, (otsaila, martxo eta apirila). Tel.: 77 08 08.

5. Etxe konpartituak

• Logela bat alokatzen da Arrasate-ko erdiaidean. Tel.: 79 87 59. Tere.

• Donostian pisua osatzeko lagun bat behar dugu. Etxea erdi aldean dago. Tel.: 85 16 64.

• Arrasaten lagun bat edo bi behar dira pisua osatzeko. Tel.: 77 12 42. Iban.

• Alokaturako pisu baten sartuko nintzateke. Tel.: (948) 25 47 16. Gaueko 11ak baino lehenago.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solai-ruan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

LOKALAK

14. Errentan emateko

• Etxabea alokatzen da bulego, kon-tsulata eta abar jartzeko egokituia. Tel.: 79 18 95.

15. Errentan hartzeko

• Arrasaten lokal komertziala edo industrialia hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.

• Gazte batzuk lokal baten bila dabil-tza. Tel.: 79 56 14. Igor.

LANA

17. Eskaintzak

• Titulodun neska gertu adminis-tratzaile lanetarako. Tel.: 907 94 06 67.

• Esperientziadun andra euskaldu-na etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 77 04 60. Margari.

• Geriatrian diplomadun neska gaz-tea pertsona nagusiak zaintzeko ger-tu. 11 urteko esperientzia. Tel.: 79 61 05. Amaia.

• 35 urteko emakumea gertu sukal-dean laguntzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 05 53.

• Etxeetara arropak plantxatzeraz joa-teko gertu nago. Tel.: 79 05 53.

• Umeak zaintzeko edo orduka gar-biketarako gertu. Tel.: 71 53 74. Bazkal orduan edo gauetan deitu.

18. Eskaerak

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egi-teko emakumea behar da. 77 04 70. Gaez deitu.

• Jatetxe eta barrarako kamareroa behar dugu. Tel.: 79 11 25.

• Pertsona euskalduna behar da ume-ak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 03 82.

• Hiru seme-alaba dituen Arrasate-ko familia batek neska euskalduna behar du. Tel.: 907 25 84 04.

• Esperientziadun neska behar da

denda batean lan egiteko. Tel.: 77 06 82.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tel.: 79 35 73. Gaez deitu.

• Umeak zaindu eta etxeko lanak ego-teko emakume behar da. Tel.: 79 49 92.

• Emakumea behar da denda baten lan egiteko. Tel.: 77 13 91.

19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Titulodun neska batek DBHko 3. mailako klase partikularrak eman-go lituzke gazteleraz. Tel.: 79 79 84. Arratsaldeko 3etatik aurrera.

• OHoko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 98 68.

• Esperientziadun neskek OHoko kla-se partikularrak emango lituzke eus-karaz nahiz erdaraz. Tel.: 79 25 09.

• Alemaniera ikasten hasi nahi badu-zu, klase partikularrak emateko prest nago. Tel.: 79 82 42. Ainhitze.

• Psikologoak OHoko klase partiku-larrak emango lituzke. Tel.: 77 17 02.

21. Eskaerak

• Injinerutzako lehen mailako ikas-leak marrazketako klase partikula-rrak hartu nahi ditu arratsaldeko 7etatik aurrera. Tel.: 79 73 04.

MOTORRA

23. Saldu

• Ford Fiesta Sport Mango 1.4, SS-AP autoa salgai. 36.000 km. Berri-berria. Tel.: 79 66 58. Gaez.

• Ford Fiesta XR2 lehenengo modeloko salgai. BI-AB. Pre-zioa: 175.000 pta. Tel.: 79 37 68.

DENETARIK

26. Saldu

• Tosai markako kerosenozko berogailua salgai. Tel.: 79 82 36 / 79 78 65. Gaez.

• Ilepaindegirako tresneria salgai. 200.000 pta. Tel.: 79 67 12.

• Karabanendako neguko abantzea salgai. Inca Alpes 250 modelo. Bi urte ditu. Tel.: 79 66 09.

• Bigarren eskuko erremolkea sal-gai. Tel.: 79 86 75. Denda orduetan.

• Meto markako barazki eta haragia pisa-tzeko tresna salgai. Tel.: 79 08 97.

• Egoera onean dagoen disc-man-a salgai. Gabonetarako aproposa. Tel.: 79 09 92. Bazkal orduetan edo gaez.

• Marrazketako mahaia salgai. Mer-kea. Neurriak: 81 x 140 zm. Tel.: 79 09 92. Bazkal orduetan edo gaez.

• Baserriko kiwi ederrak salgai. Auke-ra ederra! Tel.: 79 97 84.

• Faxdun telefonoa salgai. Berria eta prezio onean. Tel.: 79 65 31. Tere.

27. Erosi

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

30. Hartu

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldeta eta hozkailu bat behar ditu. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Parrokiatik Ferixalekurako bidean erlojua galdu zitzaidan. Narruzko korrea azul iluna du. Tel.: 77 13 77.

32. Aurkitu

• Lasagabaster jantxidendan betau-rrekoak eta giltzak utzi dituen pas-a dadila bertatik jasotzera.

• Gurutze idatzita daraman katea aur-kitu dut. Tel.: 79 77 79.



77 05 65

Arrasate Press • Otarola Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohai-nekoak dira. Parti-kularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pres-sek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen dei-tu behar da iragarkia jartzeko.

Kaferako Kantak

Txanpon baten truke

Ezagutzen dut gizon bat
kale kantoian jarrita
ipuin harrigarriak kontaktzen dituena
txanpon baten truke.

Dragoia eta printzesaren
ezinezko maitasuna
zahartutako basoko loti ederraren
azken egunak,
printze urdinak abandonatuta
Txanogorritxuren dibortzioa
otsoaren suizidioa.

Jendea presaka dabil ordea
entzuteko astirik ez dauka
aspaldiko garaietan, urrutiko lurraldetan
gertatutako ixtorioak.

Ixil-ixilik dago

Ixil-ixilik dago kaia barreanean
ontzi txuri polit bat uraren gañean.
Goizeko ordu bietan esnatutzen gera
arrantzaliarekin joateko urrutira.
Pasatzen naizenean zure leiopetik
negarrak irteten dit begi bietatik.

Zergatik, zergatik, zergatik, zergatik...
zergatik negar egin
zeruan izarra dago itsaso aldetik.

Bat, bat, bat, parrandan ibili bart,
parrandan ibili bart.

Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili,
ez naiz ondo ibili.

Hiru, hiru, hiru, kolkua bete diru,
kolkua bete diru.

Lau, lau, lau, sardiña bakalau.

Anteron txamarrotia
singerren bibotia
aretxek ez dauka, ez dauka
preso tximinoia.

Aita jainkoak egin banindu

Aita jainkoak egin banindu
zeruetako giltzari,
azken orduan jakingo nuke
atea nori ireki.
Lehenengo aitari,
gero amari,
gero anai-arrebari,
ta azken orduan ixil-ixilik
nere maite politari.

Gazte gaztetatik aitak eta amak
praile ninduten nonbratu,
estudiuak ikasitzera
Salamankara bialdu.
Salamankara nindoalarik
bidean nuen pentsatu
estudiante tunante baino
hobe nuela ezkondu.

Ezkondu nintzan,
bai ni ezkondu,
baita be sarri damutu
praka beltzetan hari zuririk
ez zait sekula faltatu.



URONDO

Elektrizitatea

ZORIONAK ETA URTE
BERRI ON ARRASATE!

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

Mendian gora

Mendian gora haritza
ahuntzak haitzean dabilta
itsasoaren arimak dakar
ur gainean bitsa.
Kantatu nahi dut bizitza
usteltzen ez bazait hitza
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa banintza.

Euskal Herriko tristura
soineko beltzen joskura
txori negartz bete da eta
umorez hustu da.
Emaidazu freskura
ura eskutik eskura
izarren salda urdina edanda
bizi naiz gustora.

Euskal Herriko poeta
kanposantuko tronpeta
hil kanpaiari tiraka eta
hutsari kolpeka.
Argitu ezak kopeta
pena aurretzat gordeta
goizero sortuz bizitza ere
hortxe zegok eta.

Mundua ez da beti jai
inoiz tristea ere bai
bainan badira mila motibo
kantatzeko alai
bestela datozen penei
ez diet surik bota nahi
ni hiltzen naizen gauean behintzat
egizue lo lasai.

San Simon eta San Juda

San Simon eta San Juda
joan zen uda
eta negua
heldu da.

Ez baletor hobe
bizi gara pobre
eremu latz honetan
ez gara hain onak benetan.

Ez dugu zaldirik
ez gara zaldunak.
Ez dugu abererik
ez gara aberatsak.

Euskara guk dugu
gu gara euskaldunak (Bis)

Behin batian Loiolan

Behin batian, Loiolan
erromeria zan,
hantxe ikusi nuen
neskatxa bat plazan;
txoria baino ere
arinago dantzan,
huraxe bai polita,
han politik bazan!

Esan nion desio
senti nuen gisan,
harekin hizketa bat
nahi nuela izan;
erantzun zidan ezik
atsegin har nezan,
adituko zidala
zer nahi nion esan.

Arkitu giñaian
inor gabe jiran,
koloriak gorritu
arazki zizkidan.
Kontatuko dizuet
guztia segidan,
zer esan nion eta nola erantzun zidan.

-Dama polita zera,
polita guztiz, ai!
Bainan halere zaude
oraindik ezkongai;
ezkon gaitezen biok.
Esan zadazu: bai!
-Ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin? Ja-jai!

Izarren hautsa

Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen bizigai
hauts hartatikan ustegabeen
noizpait ginaden gu emai
eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe (Bis)
lana eginaz goaz aurrera
kate honetan denok batera
gogorki loturik gaude. (Bis)

Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak
burruga hortan iraungo duten
zuhaitz ardazka gazteak.
Beren aukeren habe eraikiz
ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak: (Bis)
gertakizunez indar ta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz
egiaztatuko dutenak. (Bis)

Ikusi mendizaleak

Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera
igo behar dugu.

Ez nekeak, ez da bide txarra;
gora-gora, neska-mutilak, a-a-a
Gu euskaldunak gara,
Euskal Herrikoak.

Hemen mendi tontorrean
euskal lurren artean,
begiak zabaldurik,
bihotza erretan,

Hain ederra, hain polita da ta;
gora-gora, Euskal Herria, a, a, a.
Gu euskaldunak gara,
Euskal Herrikoak.

Bagare

Arabian bagare
Gipuzkun bagera
Ziberun bagire
ta Bizkaian bagara,
baita ere Lapurdin ta Nafarran.

Guztiok gara euskaldun
guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera.

Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera,
bagire, bagara
euskera askatzeko
orintxe dugu aukera.

Hator, hator...

Hator, hator mutil etxera
gaztañak ximelak jatera
gabon gaba ospatuzeko
aitaren eta amaren ondoan.

Ikusiko dek aita parrezka
ama ere poz atseginenez.

Eragiok mutik aurreko danboliñ horri
gaztañak erre artian (bis)
txipli txapla pun
gabon gaba pozik igaro daigun.

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

**ALTZARIAK
DEKORAZIOA**

AROSZTEGIA



San Juan, 1
(Gasolindegiaaren parean)
BERGARA
Telefono eta Faxa: 76 54 91



LEIHO ISOLATZAILEAK



Bezeroarekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak

**Irtenbide
aproposena!**



(I+D) Ikerketa eta garapena



Fabrika Zentrala

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.
Tel.: 77 01 57 • ARRASATE



Gure aitak amari Mari Domingi

Gure aitak amari
gona gorria ekarri;
berriz ere maiteko dio
gure amak aitari.
Gire aitak amari
gona gorria ekarri.

Gona gorria
zazpi jostunek josia;
berriz ere maiteko dio
gure amak aitari.
Gure aitak amari
gona gorria ekarri.

Horra Mari Domingi,
begira horri:
gurekin nahi duela
Belena etorri.
Gurekin nahi badezu
Belena etorri,
atera beharko dezu
gona zahar hori.
Atoz, atoz,
zure bila nenbilen ni.
Atoz, goazen,
adora dezagun
Belenen jaio den
haur eder hori.

Nundikan atera den
gona zahar hori.
Berririk baldin baden,
gorde zahar hori.
Harriturik ziagon
Belengo herria.
Aterakin hortik
farragarria.
Atzo, atoz...

Jo dezan panderoa,
andre Prantziska.
Nundikan etorri haiz
horren korrika?
Ezin explikaturik
misterioa.
Belenen jaio dela
haur dibinoa.
Atoz, atoz...

Irrintzi eta poza
algarekin
hori behar diagu
guk alkarrekin.
Pozez adora zagun
Jesus haur ona,
berak eman dezaigun
gaur zoriona.
Atoz, atoz...

Egia da

Egia da, egia da,
nik ikusi dudalako.
Egia da, egia da,
por que lo he visto yo
porque que moi je l'ai vu.

Arratseko oskorritik
goizeko oskorriraino
gauean ez da entzunen
ez da entzunen gauean
gauean ez da entzunen
sorgin musika baino.

Gexurra dirudi baina
sano ta freko gaude,
musika da denboraren
denboraren musika da
musika da denboraren
sekretuaren jabe.

Gaspe odola duenak
festa eta algara,
hamabost urtez oraindik
oraindik hamabost urtez
hamabost urtez oraindik
hasi berriak gara.

ALFA ROMEO 156, EUROPAN 1998. URTEKO AUTOA!

ZATOK EZAGUTZERA!



ALFA 156

=KANPAZAR TAILERRAK

Tailerra : Bizkaia Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel: 79 41 98

Erakusketa : Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE • Tel: 79 77 66 • Faxe: 77 12 84



Orain dela urte batzuk San Frantzisko parrokian gazteekin osatutako taldea zegoen. Taldeko partaideak gabon bezperan kalera irtetzen ziren kantuan Aranguren baserriko Joxe Etxebarriak egiten zien belenarekin. Argazkian ikusten denez kuadrila galanta irtetzen zen

kaleko giroa alaitzen. Argazkian ageri direnak: Gabon kartelarekin Aitor Zumelaga eta jarraian: Angel Epelde, Luis Mari Altube, Fernando Amozarrain eta Jabier Abasolo. Pakea dioen kartelarekin Jokin Arregi.

Zutik dauden neskatalak: Lucia Uribarren, Maria Sanz, Beatriz Arregi, Mertxe Zabaleta, Itziar Etxebarria,

Amaia Iturriaga, Mertxe Sainz, Rosa Mari Gonzalez, Itziar Aranburu, Roman Kortabarria, Kontxi Martinez, Kontxi Garcia, Inmaculada Balanzategi, Malu Uribetxebarria eta. Arantza Mendizabal.

Behean: Garbiñe Ugalde, Isabel Urcelay, Maite Isasa, Espe Sainz, Mari Tere Roa, Mari Jose Bolinaga, Lorea Bolinaga,

Arantza Etxebarria, Mertxe Sainz, Mari Sol Usatorre eta Mari Sol Oyangueren. Lurrean etzanda dagoena: Juanito Lizarralde.

Urtea: 1966.

Informazioa eta argazkia: Juanito Lizarralde.



GASTON Y DANIELA
Tapizeria • Mokatak Alfonbrak


Alfonbra eta oihalez gain, haur eta gaztetxoendako altzari sail berria topatuko duzu bertan!

Zatoz estreinatatu dugun erakusketa berria ezagutzen!

Kruz gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 76 07 37



Erreala!



ARRASATE KIROOLAK
esklusiban
banatutako posterra
Arrasaten.

Olentzero ARRASATE KIROOLAKen!

ASTORE

Egizu Olentzerorako opariak
ARRASATE KIROOLAKen
eta eraman ezazu
Erreala etxera!



ARRASATE
KIROOLAK

Kirol bakoitzerako
erantzun bat

TXIKILAN DIA 98

Squash-a • Magoak • Gurasoen gunea • Serigrafia
Txiki-Txoko • Trikujintza • Baporegintza • Tirolina
Zure ipuinak • Igela • Zubi tibetanoa • Zezen mekanikoa
Trentxoa • Futbolina • Eskalada • Zubing-a • 40 begirale

Eskerrak



ARRASATEKO UDALA




ARRASATE
KIROLAK

Grupo



EROSKI

Amuebladora
Mondragonesa



MECCA



kutxa

CAFE
BAQUE

Antolotzaileak



Urtearrilak 2, 3, 4, 5
Musakolako Kiroldegian

GOIZEZ 11 etatik 2 etara
ARRATSALDEZ 4 etatik 8 etara



Udal Aurrekontuak

98

Joan den ostegunean, hilaren 18an, datorren urteko aurrekontuak onartu ziren EAJ, PSE-EE, EA eta PPren aldeko botoekin. EBk eta HBk, berriz, hainbat emendakin aurkeztu zuten.

Urtero moduan, Arrasate Pressen eskutik, hemen dituzue datorren urteko partida garrantzitsuenak. Zerrenda luzea dela eta, guztiak ez ditugu jaso. Datorren urterako aurrekontu orokorra zein den behean zehaz-

ten zaizue. Hor barruan, Udalaren aurrekontua dago: 3.107.431.709 pta; Iturbide egoitzaren aurrekontua 210.493.737 pta. eta azkenik AUKEA erakundearena, 145.890.800 pta.

AURREKONTU OROKORRA

3.296.512.739 pta.

(laz baino 6.385.295 pta. gutxiago)

SARRERAK3.107.431.709 PTA.

- Zuzeneko zergak613.760.000 pta.
- Zeharkako zergak85.000.000 pta.
- Tasak eta prezioak447.819.000 pta.
- Transf. korronteak1.408.792.187 pta.
- Ondare sarrerak42.000.000 pta.
- Inbertsioak inorenganatzeari50.000.000 pta.
- Kapital transferentziak245.145.000 pta.
- Finantz aktiboen aldaketa10.000.000 pta.
- Maileguak204.915.522 pta.

GASTUAK3.107.431.709 PTA.

- Pertsonal gastuak687.369.895 pta.
- Ondasunak eta erosketak541.013.153 pta.
- Interesak97.781.623 pta.
- Transferentzia arruntak600.933.019 pta.
- Inbertsioak923.350.007 pta.
- Kapital transferentzia76.722.150 pta.
- Finantz aktiboen aldaketa10.000.000 pta.
- Amortizazioa170.261.862 pta.



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



TABIRA
Dietetika eta bedardenda
Munar, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 73 54

GOBERNU ORGANOAK 47.505.216 PTA.

- Gobernu organoen ordainketak34.700.000 pta.
- Alkatearen hartzekodunak.....7.326.325 pta.
- Alkatearen mutualitatea.....2.015.891 pta.
- Funtzionamendu gastuak910.000 pta.
- Arantzazuko erromesaldia75.000 pta.
- Argitalpenak.....1.500.000 pta.

KULTURA ETA KIROLA 490.765.930 PTA.

- Pertsonalaren gastuak.....46.750.929 pta.
- Kultur ekintzak10.000.000 pta.
- Jaietako gastuak22.000.000 pta.
- Txikilandia2.440.000 pta.
- AUKEararen defizita.....88.000.000 pta.
- Kulturarako dirulaguntzak9.820.000 pta.
- Ospitala.....60.000.000 pta.
- Arrasate Musikalendako40.000.000 pta.
- AEDko ludoteka.....5.300.000 pta.
- Ferixalekuko frontoia121.000.000 pta.
- Liburutegi berria.....40.000.000 pta.

HEZKUNTZA 107.617. 738 PTA.

- Pertsonal gastuak17.838.738. pta.
- Ondasunak eta zerbitzuak22.241.000 pta.
- Hezkuntzako dirulaguntzak8.200.000 pta.
- Herri ikastetxeen proiektuetarako ...3.685.000 pta.
- SFX Ikastola.....16.930.000 pta.
- Umezaintza3.975.000 pta.
- Institutua.....4.613.000 pta.
- Almen.....1.570.000 pta.
- San Viator.....8.835.000 pta.
- La Merced4.730.000 pta.
- Hezkuntzako inbertsioak.....15.100.000 pta.

GAZTERIA 30.958.838. PTA.

- Pertsonalaren gastuak.....6.895.124 pta.
- Gazteria batzordearen ekintzak.....12.800.000 pta.
- Gazteriako dirulaguntzak.....7.014.212 pta.
- Eudimaren kuotak300.000 pta.
- Garibai etxeko teilatua.....2.000.000 pta.
- Gazteria zerbitzurako erosketak.....530.000 pta.



Eguberri on eta 1998 urte Zoriontsua opa dizuegu



multimedia

- Katalogo interaktiboak
- Formakuntza sistemak
- Informazio puntuak
- Aurkezpen interaktiboak

internet

- Web orrien Diseinua
- Web Korporatiboak
- Produktuen Web-ak
- INTERNET-era konexioa

komunikazio grafikoa

- Irudi korporatiboa
- Memoriak
- Katalogo eta Liburuxkak
- Kartelak

www.danka.es

Nafarroa Etorbidea z/g | 20500 Arrasate- Mondragón | (943) 71 20 51 | E-mail: danka@danka.es

OSASUNA243.251.046 PTA.

- Pertsonal gastuak26.650.886 pta.
- Etxeko laguntza zerbitzua69.300.000 pta.
- Gizarte etxearen ekipamendua7.000.000 pta.
- Iturbide egoitzaren defizita68.000.000 pta.
- Pobreziaren kontrako plana30.000.000 pta.
- Osasun batzordearen ekintzak3.950.000 pta.
- Egoitzako inbertsioak6.200.000 pta.
- Zahar etxeen inbertsioak2.500.000 pta.
- Babesetxea: funtzionamendua200.000 pta.
- KIUBen ekintzak200.000 pta.
- Babesgabeko egoeretarako laguntz...3.000.000 pta.

AUZOAK72.488.177 PTA.

- Auzoetako jaietarako dirulaguntza...7.044.623 pta.
- Auzoetako inbertsioak21.000.000 pta.
- Mendi nekazaritzako inbertsioak7.000.000 pta.
- Baserri bideak.....20.000.000 pta.
- Baserri auzoetako seinalizazioa.....2.000.000 pta.
- Nekazaritzako kuota2.475.996 pta.

HIRIGINTZA614.083.883 PTA.

- Pertsonalaren gastuak.....76.841.882 pta.
- Ondasunak eta zerbitzuak7.675.000 pta.
- Ingurugiro taldeendako dirulaguntzak .510.000 pta.
- Uharkapeko obrak100.000.000 pta.
- Ur eta saneamendu inbertsioak ...18.000.000 pta.
- Aramaio erreka8.000.000 pta.
- Agerre plazako urbanizazioa20.000.000 pta.
- Olarte60.000.000 pta.
- Oinezkoen zumardia100.000.000 pta.
- Autobus geltokia35.000.000 pta.
- Zerbitzu-sari teknikoak10.000.000 pta.
- Lur industrialia50.000.000 pta.
- San Juan Parrokia25.000.000 pta.
- San Kristobal hilerria handitzea49.000.000 pta.
- Zaldispeko urbanizazioa15.000.000 pta.
- Asfaltatuak8.000.000 pta.

FINANTZ ZORRA268.043.485 PTA.

- Maileguren interesak97.781.623 pta.
- Amortizazioa170.261.862 pta.

LENIZ

Garagardotegia

Zorionak eta
Urte Berri On!

Iturriotz, 8
Tel.: 79 22 29 ARRASATE



ZARAYTZ ALTZARIAK

Olarte kalea, 35 • ARRASATE • Tel.: 79 28 44

PERTSONALA273.841.427 PTA.

- Pertsonalaren gastuak174.752.820
- Udal aseguruak11.500.000
- Enpleguaren ekintzak7.800.000
- Prentsa eta irratiko iragarkiak4.120.000
- Lege-aholkularitza5.000.000
- Lantegi eskola7.257.290
- Lanbide hastapena7.619.357
- Pertsonalaren aurrerakinak10.000.000
- Enpresa ekimen berriak-EEZ1.100.000
- Egitura ekonomikoaren modernizazioa ...2.325.200

EUSKARA150.976.446 PTA.

- Pertsonalaren gastuak81.135.974 pta.
- Euskaltegirako erosketak1.900.000 pta.
- Euskararako dirulaguntzak50.350.000 pta.
- Euskara bekak1.807.170 pta.
- Euskaltegiko inbertsioak2.200.000 pta.
- ARKOren inbertsiotarako1.684.650 pta.
- Arrasate Irratirako inbertsioak300.000 pta.
- Euskaltegiaren publizitatea434.419 pta.

ZERBITZUAK774.513.356 PTA.

- Pertsonalaren gastuak219.375.304 pta.
- Ur eta saneamendu erosketak12.350.000 pta.
- Parques y Jardines zerbitzua72.413.000 pta.
- Mankomuni.hondakin solidoak71.835.059 pta.
- Bide publikoaren mantenimendua 3.500.000 pta.
- Uren partzuergoaren kuota73.325.000 pta.
- Argiteria publikoaren energia33.445.000 pta.
- Bideak garbitzeko zerbitzua102.125.000 pta.
- Azoka: funtzionamendu gastuak2.050.000 pta.
- Garraio publikoa1
- Aldai hilerria2.000.000 pta.
- Uren partzuergoa-saneamendua50.037.500 pta.

EMAKUMEAREN BATZORDEA14.896.563 PTA.

- Pertsonalaren gastuak4.233.563
- Emakumearen udal kontseilua9.425.000
- Dirulaguntzak1.100.000
- Pertsonalaren ikastaroak51.000
- Argitalpenak61.000

MONTE ERANTZUN INTEGRALA.



Montte
EKIPAMENDU INTEGRALA • BARNE DISEINUA

- ESKOLARAKO BEHAR DUZUN DENA
- INFORMATIKA
- IKUSENTZUTEZKOAK
- BULEGO ALTZARIAK ETA TEKNOLOGI BERRIAK (ESO)
- LIBURUTEGIAK
- APALAK
- GORTINAK

Pablo Uranga, 1
Tel.: 79 38 22
Faxa: 79 36 78
ARRASATE

Poligono Industrial, 10
Tel.: 88 88 00
Faxa: 88 88 07
BEASAIN

Aldibi

ALDIBI AUTOAK, S.A.
Zigorrola kalea, 1
Tel.: 71 20 02 / Faxa: 79 65 65

Gure lehen urteurrenean eskerrik asko Arrasate!



Jose M. Barrutiabengoa
Gerentea

*"Aldibiko langileen eta nire izenean
Gabon zoriontsuak opa dizkizuet.
URTE BERRI ON!"*

ETORKIZUNARI AURREA HARTUZ.

VOLVO
Auto suecia,S.L

CHRYSLER
Musakola autoak, S.

Mazda
Musakola autoak, S.L

HYUNDAI
Musakola autoak,S.L


NISSAN
Aldibi Autoak, S.A

Mercedes-Benz
Izar autoak,S.L

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Betidanik bizitza sukaldean egin izan dugulako.
Gabonetan ere, familia osoa bildu
eta etxean ospatuko dugu.
Zorionak eta Urte Berri On!

FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42